

ITZULPENA ARLO JURIDIKOAN

I. Sarrera

II. Itzulpengintza arlo juridikoan

III. Eleaniztasunaren ondorio: Itzulpengintza

1. Europako egoera

2. Kanadako egoera

3. Euskal Herriko egoera

IV. Itzulpenaren profesionalak

V. Korredakzioaren beharra legegintzan

VI. Ondorioak

I. Sarrera

Itzulpengintzaren definizio azkar bat eman behar bagenu honakoa esango genuke: itzulpena jatorriko komunikazio mezuak (edo sorburu-mezuak) dioeten guztia esatea ahalik eta idazkera natural eta jatorrenean adierazteko bidea da. Itzulpengintzak sorburu eta helburu jakinak ditu beraz. Hizkuntza batean sorturiko komunikazio mezu bat du sorburutzat eta beste hizkuntza batean mezu hori sortzea helburutzat. Bi osagai horien artean (sorburu eta helmugaren mezuen artean, alegia) itzulpen lana dugu. Itzulpen jardunean bi hizkuntzen arteko aldaketa gertatzen da, eta aldaketaren tentsio horretan beharrezkoa da itzulpen-hizkuntzaren autonomia bere horretan bermatzea, hizkuntza horren estilo propioa gailendu dadin. Zalantzarik gabe, itzulpen ona irakurlearengan jatorrizko hizkuntzan nahiz itzulitako hizkuntzan irakurtzerakoan eragin berbera sortzeko gai izango litzatekeen itzulpena da.

Itzulpengintzak gure artean ezinbesteko lekua bete du urteetan zehar. Euskal literaturaren historian, esaterako, leku nabarmena izan du betidanik. Baina euskal kulturaren baitan itzulpenaren pisua ez da bakarrik eremu horretara mugatzen: prentsan, irratian, telebistan... eta baita arlo juridikoan ere, itzulpenek izugarrizko garrantzia dute. Mezuak hizkuntza batetik bestara pasatzeko helburua ez ezik, Euskal Herriari dagokionez, itzulpengintza gure hizkuntza normaltzeko eta egunartzeko beste trasa bat ere bilakatu da. Jarraian jorratuko den lan honetan, itzulpengintzak arlo juridikoan duen lekua nabarmendu nahi da. Helburua da, itzulpengintzak alor berezi honetan dituen zereginak azaldu, profesional ugariaren lana azpimarratu eta itzulpengintzaz haratago doan beste teknika baten aurkezpena egitea, korredakzioarena alegia.

II. Itzulpenagintza arlo juridikoan

Jakina den bezala, oro har, bi itzulpen alor ezberdin desberdin ohi dira: itzulpen tekniko-zientifikoa batetik, eta, itzulpen literarioa bestetik. Itzulpen juridikoa, itzulpen teknikoaren eremuaren baitan kokatzen da, bai dituen bereizgarri linguistiko propioengatik, bai jorratzen dituen gaien berezitasunagatik ere.

Itzulpen tekniko orok ezaugarri bereziak ditu, esaterako, adierazpenen zehaztasunaren beharra eta terminoen esanahi aldaezina. Mundu juridikoan ere bi ezaugarri horiek bereziki oinarritzkoak ditugu. Beste hitz batzuetan esanda, itzulpen juridikoak jatorrizko hizkuntzan adierazitako mezu osoa islatzen jakin behar du eta ahal den neurrian, anbiguotasunik gabekoa izan behar du, nahasteak baztertze aldera. Itzulpen juridikoak galdatzen duen argitasuna ez da faktore erantsi soil bat, baizik eta itzulpenaren funtsezko osagarri bat.

Arlo juridikoaren itzulpengintzak, bere aldetik, baditu bereizgarri diren ezaugarri batzuk. Honakoak azpimarratu genitzake:

1. Itzulpen juridikoak jatorrizko testuarekiko erabateko fideltasuna izan behar du. Behar horrek itzulpenaren printzipio estetikoek gainetik zehaztasuna eta segurtasuna ipintzera garamatza.
2. Arlo juridikoak hizkuntz baliabide espezifikoak erabiltzen ditu, batik bat latinetik mailegatutako terminoak (magistratua, jurisprudentzia...).
3. Hizkuntza juridikoak bezalaxe, itzulpen juridikoak tonu formal eta inpersonala erabili behar du.
4. Hizkera juridikoak izaera funtzionala du. Alegia, testu juridikoak ez du helburu estetikorik behar, lehentasunezko xedea komunikatzea baita. Hortaz, itzulpenak ere hizkuntza argi, esplizitu eta, ahal den heinean, lañoa erabili behar baitu.
5. Testu juridikoek estruktura terminologiko konplexua agertzen dute. Zuzenbidearen adar bakoitzak, gainera, kontzeptu propioak izanen ditu eta itzultzaile onak ezagutza teknikoak behar ditu, hizkuntzalari soila izan gabe (laneko zuzenbidea, zuzenbide zibila, zuzenbide penala, foru zuzenbidea, eta abar ezagutu behar ditu).

Itzulpen juridiko guztietan kontutan hartu beharreko faktoreak ditugu horiek. Ordea, euskal itzulpen juridikoaz mintzo garenean, (alegia gazteleratik euskarara itzulitako testu juridikoa), faktore horiez gain, badira ere kontutan hartu beharreko bestelako premisak. Izan ere, euskal itzulpen juridikoak badu arazo mordoa. Gazteleratik euskarara itzulpen juridikoak egiterako orduan, honakoak dira aurkitzen ditugun oinarritzko oztupoak:

Lehenik eta behin, euskarak ez du tradizio juridikorik garatu. Euskarazko zuzenbidearen munduan ez ohiturarik, ez eredurik eta ez baliabiderik ez izanak, hutsetik abiatu beharrera behartzen ditu itzultzaileak.

Bestetik, gainera, Euskal Herrian gaur egun arte izan den ordenamendu juridikoa gaztelania eta frantsesarena da. Euskarari ordenamendu arrazotzengandik itzulpen-hizkuntza izateko aukera besterik ez zaio eman. Horrenbestez, arlo juridikoan, ez da oraindik euskal diskurtso juridikorik sortu eta estatusaren aldetik, euskara hizkuntza ofiziala izanik ere, bigarren mailako ofizialtasun batean geratzen da. Itzulpenean oinarritutako hizkuntza politika batek euskara ofizialtasun menperatu batera darama, beti, erdal hizkuntzen atzetik.

Eta azkenik, ezin uka daitezke euskarak gaztelaratik jasan dituen interferentzia nabariak. Hizkuntza batek, beste jatorrizko hizkuntza bakar baten itzulpenera mugatzen denan, corpus-aren aldetik, interferentzia arrisku handia du. Gurean behiantzat argi eta garbi gertatu da zuzenbidearen eta administrazioaren arloan hizkuntza menpetosuna: gaztelaniarekiko kalkoa nabaria izan ehi da sarritan eta horrek euskarazko testuen komunikagarritasun eskasa eta oro har, testu kalitate eskasa ditu ondorio. Erdal testuak markatzen du euskal itzulpenak izango duen egitura, estiloa eta itxura, eta, horren ondorioz, euskarazko testua gaztelaniazkoaren morroi bihurtzen da. Aski zaigu geure buruari galdera hau egitearekin: Zenbatetan irakurri behar izan dugu testu baten gaztelaniazkoa bertsioa, euskarazkoa ulertu ahal izateko?

Horri guztiari zailtasun gehigarri bat erantsi behar zaio: gaztelaratik euskararako itzulpenaren arazo linguistikoak. Izan ere, euskara eta gaztelaniaren arteko ezberdintasun nabariak ez dute, noski, itzulpen lana errazten. Gaztelania hizkuntza prepositiboa da eta adierazpenaren jarraitasuna du bere ezaugarri nagusia. Euskara, ordea, hizkuntza pospositiboa eta eranskaria da. Bi hizkuntzak egituraz nahiz bilakaeraz oso ezberdinak diren heinean, gauzak adierazteko moduak ere neurri batean ezberdinak izan behar du. Dena den, zailtasun linguistiko guzti horiek konpontze aldera, lan bikaina egin dute zenbait eragilek. Itzulpenaren arazo linguistikoak jorratu dituztenen artean, bereziki aipagarriak dira Eusko Legebiltzarraren estilo-liburua eta IVAPen "Itzulpen-estrategiak" liburua, kontsultarako baliabide bikaina osatzen baitute.

Zailtasu horiek guztiek, hein handi batean, arlo juridikoko itzulpena gidatu eta baldintzatu dute eta, badirudi, hala izango dela luzaroan. Hortaz, ukalezina da itzulpengintza politika huts batean erortzeak, kalteak ere badituela euskararentzako eta noski, bere normalizaziorako.

III. Eleaniztasunaren ondorioa: itzulpengintza

Itzulpengintzak gizarte eta bizitzaren hainbat arlotan du bere lekua. Egia da ordea, gizarte elebidunetan leku berezia hartzen duela, beharrian faktorea dela eta. Jarraian aipatuko ditugun hiru adibideen ezaugarri komuna eleaniztasuna da. Hiru kasuetan hizkuntz aniztasunak itzulpengintzaren zabaltze eta sendotze batera eramán gaitu.

1.- Europako kasua

Eleaniztasuna Europar Batasunaren funtsezko balioa da. Estatu kideetako hizkuntz aniztasuna errespetatzea, eskubide baino gehiago, erakundeen jarduteko printzipioa da Erkidegoan. Hori dela eta, hasietatik, Europar Batasuna osatzen duten herrialdeen hizkuntza ofizial guztiak era automatikoa hizkuntza ofizialak eta lanerako hizkuntzak izango zirela aurrikusi zen. Hizkuntz erregimena ezarri zuen lehen arau komunitarioa 1958. urtekoa dugu. Garai hartan, alemana, frantsesa, italiara eta nederlandera aintzatesten ziren hizkuntza ofizial bakartzat (estatu kideetako hizkuntza ofizialak, alegia). Denboraren poderioz, Erkidegoa zabaltzen joan den heinean, hizkuntza ofizialen zerrenda ere zabalduz joan da. Ordea, zabalkuntza horretan ere, kasu guztietan kide berrien hizkuntza ofizialak Erkidegoko hizkuntza ofizial eta lanerako hizkuntza bihurtu ziren. Hala, gaur egungo Batasunak 23 hizkuntza ofizial eta lanerako hizkuntza ditu, alegia, alemana, frantsesa, ingelesa, daniera, nederlandera, gaztelania, italiara, greziera, portugesa, suediera, eslovakiera, esloveniera, estoniera, hungariera, gaelera, letoniera, lituaniera, poloniera, txekiera, maltera, bulgariera eta errumaniera.

Printzipioz, Europako erakunde oroko hizkuntza horiek guztiak erabil daitezke eta europar hiritarrek hizkuntza horietako edozeinetan zuzen daitezke erakundeetara, eta erantzuna hizkuntza berean jasotzeko eskubidea dute. Funtsean, ordea Batasunaren arabera hizkuntza ofizial guztiak lan-hizkuntza diren arren (berdintasun egoeran berez), egoera bestelakoa da: gaur egun, ingelesa eta frantsesa dira lan hizkuntza erabilienak eta gainontzeko hizkuntzak itzulpen lan soila izan ohi dira. Hau da, ofizial hizkuntza horietara guztietara itzuli behar izaten dira dokumentu guztiak. Erakundeak egindako ahozko nahiz idatzizko ekintza guztiak hizkuntza ofizial guztietara itzuli behar dira.

Zalantzarik gabe, itzulpengintza Europa Batasunaren eraikuntzan beharrezko instrumentu bilakatu da eta ez da zaila pentsatzea hainbat eta hainbat direla itzulpen lanetan diharduten profesionalak. Adibide esanguratsu gisa, esan dezakegu, Europako Batzordeak munduko itzulpen-zerbitzurik handiena duela. Denera 1.750 itzultzaile eta 600 idazkari inguruk egiten dute lan hizkuntza ofizialen arteko itzulpengintzan.

2. Kanadako kasua

Kanada, hogeita zortzi milioi biztanle inguruko Federazioa da eta bere sorreratik (1867. urtetik alegia) praktikan elebitasuna du ezaugarri, frantsesa eta ingelesa izanik hizkuntza ofizialak. Gainera, ez dugu ahaztu behar, bi hizkuntza ezezik, bi tradizio juridiko ere nahasten direla Kanadan: kodegintzaren tradizio frantsesa eta comon Law-na oinarritutako tradizio ingelesa.

Egoera honetan, Kanadako administrazioak beti izan du ingelesez eta frantsesez jardun beharra, baina betebeharrak hori ez zen orokorra izan, 1970eko Legea onartu arte, bi hizkuntzen ofizialtasuna aitortzen zuena.

1972. urteaz geroztik, Kanadako lege federal guztiak korredakzio sistema elebidunean egin dira. Alegia, Parlamentu federalean idazkera elebiduna erabiltzen da legegintzako ohiko prozesuan. Lehendabizi hizkuntza batean erredaktatu eta gero haren itzulpena egin ordez, aldi berean gauzatzen da bi hizkuntzetako testuak (frantsesez eta ingelesez). Hori dela eta, lege egitasmo bakoitzean, bi erredaktore izendatzen dira, bakoitzak hizkuntza ofizial bat menperatzen duelarik. Aditu ezberdinak lankidetzan estuan erredaktatzen dituzte testu elebidunak. Honela, hizkuntza bakoitzeko legelariak testu bana prestatzen dute, nor bere hizkuntzan. Ondoren, bi testuak elkarri egokitzen zaizkio. Testuaren azken bi bertsioak, gainera, itzultzaile juridiko eta idazlariek berrikusten dituzte, hizkuntza bien zuzentasuna bermatzeko asmotan (gramatika, joskera, estiloa, antolamendua eta koherentzia ziurtatzearen). Argi dago, legegintza eleanitz honek, ele bietan idazteko gai diren legelari eta adituen parte hartzea galdatzen du.

Korredakzioaren helburua lege egitasmo baten bi bertsio jator sortzea da, benetako eleaniztasuna bermatuz. Ondorioz, bi testuak ez dira elkarren itzulpen eta, beraz, benetakotasun berdina dute.

Ikusten denez, Kanadako legegintza kasuak benetako korredazio teknika bati erantzuten dio. Eleaniztasunak sortzen dituen errorei erantzuteko, Kanadako kasuak erakusten digu itzulpengintza soila baina erantzun ausartago bat ematea posible dela.

3. Euskal Herriko kasua

Euskal Herrian, urruti gaude Kanadako egoeratik. Gure artean, oraindik ere itzulpen tekniken artean mugitzen gara gehienbat. 1980ko hamarkadan hasi ziren euskal itzulpengintza juridikoaren hastapenak eta harrez gero, ez da oraindik euskal testu juridikorik sortu. Zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoan 1981. urtean ekin zitzaion administrazio itzulpen lanari eta gaur arte euskal arlo juridikoa itzulpenez osatu eta garatu dela esan daiteke.

Aipatu behar dugu, berez, Euskararen Legeak ez duela zehazten zer itzuli behar den eta zer ez. Legeak agintzen duen bakarra da herritarren hizkuntza eskubideak bermatu behar direla. Baina, noski, eskubide horiek bermatu ahal izateko testu asko eta asko itzuli behar dira (euskarazko sormen lanak garatzen ez diren artean, behintzat).

Azken hogeita hamar urte hauen ondorioz, gaur egun, esan dezakegu euskarazko itzulpengintza juridikoak sustrai sakonak egin dituela: Administrazio arloan, lege, arau, eta dekretu guzti-guztiak itzulpen bidez euskaratu dira, unibertsitateetako zuzenbideko eskuliburu asko ere euskarara itzulita daude, eta epaitegietako inprimaki asko euskaraz normalizatuta daude, besteak beste. Erdarak alde gutziz nagusitu duen eremu honetan itzulpengintzak leku handia eta garrantzitsua jokatu du zalantzarik gabe. Gainera, azken hogeita hamar urteren buruan ekarpen baliagarriak egin dituela ukaezin da (nahiz eta gerora ikusiko den moduan, kalteak ere sortu dituen).

Lehenik eta behin, itzulpengintza juridikoren bilakaera baliagarria izan da euskararen presentzia ziurtatzeko. Hau da, euskararak ere, hizkuntza gutxitu askok bezalaxe, itzulpena izan du aurreratzeko eta sendotzeko bidea.

Bestetik, itzulpengintza juridikoa baliagarria izan da euskal hizkera juridikoa landu, nahiz bateratzeko eta terminologia juridikoa finkatzeko. Esan daiteke, gaur egun badugula itzulpengintza juridikorako molde homogeen xamarra.

Guzti honekin, argi geratzen zaigu Euskal Herriaren kasuan, arlo juridikoa itzulpengintzak gidatua egon dela, horrek dakartzan alderdi positibo eta negatiboekin, noski.

IV. Itzulpenaren profesionalak

Euskal itzulpen juridikoaren eginkizunean hainbat eta hainbat dira lanean diharduten profesionalak. Itzulpen lanbideen artean sailkapen zorrotz bat egitea ez da erraza, baina horietako batzuen aipamena egin behar bagenu, honako sailkapena proposatuko genuke:

A.- Itzulpen zerbitzu ofiziala (IZO)

Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala Eusko Jaurlaritzaren mendeko lantalde batek osatzen du. Zehazki, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari (HAEE) atxikia dagoen zerbitzua da. Zerbitzu ofizial honen sorrera 10/1982 Euskara Legean aurreikusi zen eta honi jarraiki, 2000ko otsailaren 29ko Dekretuz arautu zen. Gaztelaniatik euskarara nahiz euskaratik gaztelaniarako itzulpen, interpretazio eta zuzenketa zerbitzuak eskaintzea da lantalde honen zeregina, bai herri-administrazioek eskatuta, bai partikularen eskariz. Halaber, hainbat lege-testuen itzulpena ere eskaintzen du bere web orrian (<http://www.ivap.euskadi.net/r61-2992/eu/#>), non, besteak beste aurki ditzakegun Euskararen erabilera normalizatzeko Legea, Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilar buruzko Legea, Langileen Estatutuaren Legea edota Konkurtso Legea.

B.- Administrazioiko itzultzailea

Oro har Administrazioiko itzultzaile deritza edozein erakunde publikoren biatan itzulpen lana egiten duenari. Euskal itzulpenaren alorrean talderik aspaldikoena eta handiena osatzen dute administrazioiko itzultzaileek. 1980an Autonomi Estatutua onartu eta ondorioz Euskararen Normalizaziorako Legea indarrean sartu zenetik ari dira lanean hainbat itzultzaile euskal administrazioan: udal administrazioan, foru administrazioan eta gobernu administrazioan poliki-poliki itzultzaile postuak sortzen eta hornitzen joan dira. Autonomia eta foru erakundeetako itzultzaileek arauak, dekretuak, erabakiak, aginduak, ebazpenak eta inprimakiak itzultzen dituzte batez ere eta udal administrazioek, berriz, aktak, agiriak eta inprimakiak. Itzulpengintza lan gehiena, beraz, administrazioak bere barne funtzionamendurako sortzen dituen testuak itzultzean datza. Ez dago esan beharrik, itzulpenen ehuneko handiena gaztelaniatik euskararakoak direla, eta inoiz, edo oso gutxitan, euskaraz sortutakoa itzuli behar

D. - Auzitegiko itzultzaileak eta interpreteak

Gure arteko auzitegi eta epaitegietan, itzultzaile eta interpretatzaileen lana herritarron hizkuntza eskubideak bermatzeko tresna bihurtu dira. Justizia-sistemak, gaur egun oraindik, hizkuntza bakarra hitz egiten du, baita bi hizkuntzak ofizialak diren lekuetan ere. Itzultzaile eta interprete judizialak, oro har, Justizia Administrazioako profesionalak dira. Organo judizialean lan egiten dute prozesu judizial batean sor daitezkeen dokumentu nahiz komunikazio bide guztiak itzultzen (esaterako, galdeketako galderak eta erantzunak, telefono-deiak eta abar). Euskal Autonomi Erkidegoko auzitegi eta epaitegietan bi hizkuntza ofizialen arteko esan osteko itzulpena da gehien erabiltzen dena (alegia, hizlariak hitz egiten bukatzen duenean itzultzen du itzultzaileak).

Itzultzaile eta interpretatzaile judizialaren lanbideak, batera aztertu baditugu ere, bi ezberdin dira. Horien arteko ezberdintasuna argia da: Itzultzaileak testu nahiko landua eta behin betikoa dauka aurrean. Esku artean duen behin behetiko testu hori itzultzen du (ia beti gaztelaniatik euskarara) eta denbora jakin bat izango du lan hori burutzeko. Kontsultak egin ditzake liburuetan eta ordenagailuan, arazoren bat sortuz gero. Interpreteak, ordea, ez du horretarako aukerarik. Interpretaritzaren oinarritzko eginkizuna hizkuntza desberdinean hitz egiten duten lagunen arteko komunikazioa ahalbidetzea da. Itzultzaile judizialak, beraz, prozesu judizialaren baitan bi hizkuntzen arteko itzulpena egiten du; bat-bateko itzulpena. Interpreteak, hortaz, azkar jardun behar du.

E.- Zinpeko itzultzailea

Zinpeko interprete eta itzultzaileak, hasiera batean, Atzerri Arazoetako Ministerioak izendatutako profesionalak dira eta bertatik jasotzen dute itzulpenak eta interpretazioak egiteko gaitasun errekonozimendua. Zinpean egindako itzulpenak beharrezkoak izaten dira bai esparru publikoan (erregistro zibileko ziurtagiriak, titulu akademikoak eta abar itzultzeko), eta bai arlo pribatuan ere (notario-agiriak eta Administrazio publikoetan aurkeztu beharreko agiri mota guztiak itzultzeko, esaterako).

Ordea, 2009. urtetik aurrera Eusko Jaurlaritzak zinpeko itzultzaile eta interpreteen habilitazioari buruzko Dekretua onartu zuen, euskarako zinpeko itzultzaile eta interpreteen figura sortu eta beren habilitazio profesionala arautzeko asmotan. Honela, Eusko Jaurlaritzak izango da zinpeko itzultzaile edo interprete hauek eginiko itzulpen eta interpretazioei ofizialtasuna aitortuko diena. Gaur egun beraz, euskarazko zinpeko itzultzaile-habilitazioa lortzeko lau bide daude: dagozkien probak gaindituta, Interpretazio eta Itzulpengintzako unibertsitate-ikasketak burutu izana frogatzea, Espainiako Kanpo Arazoetarako ministerioaren tituluaren jabe izanda edo esperientzia profesional zehatz bat edukita.

V. Korredakzioaren beharra legegintzan

Arestian adierazi den bezala, euskarazko arlo juridikoak itzulpengintzaren bidezko bilakaera izan du. Aipatu ditugu jada itzulpengintza politika huts batean erortzeak, kalteak ere badituela euskararen normalizaziorako. Hortaz, egoera hori gainditzen lagunduko lukeen proposamen bat eskaintzea izan beharko luke hurrengo pausoa.

Leggegintza eremuan, bederen, urrats berri bat posible eta batez ere, beharrezko dela argi utzi nahi dugu: idazkera elebiduna edo korredakzioaz ari gara.

Korredakzioa edo idazkera elebiduna (*bilingual drafting* bezala ezagutzen dena) testu elebidunak sortzeko erabiltzen diren tekniken multzoa da. Berez, ez dago korredakzio eredu bakar bat, molde eta jarduera desberdinak baizik. Esango genuke korredakzio deitu dezakegula baldin eta bi hizkuntzetako testuak era paraleloan sortzen badira. Hau da, bata ez denean, bestearen iturri edo hura ez bada honen morroi.

Idazketa elebiduna elkarlanean oinarritzen da: Hizkuntza biak menderatzen dituzten legelari eta adituen artean, edota legelari eta hizkuntza-adituen artean (itzultzaile edo jurilinguistak). Elkarlan horrek diziplinaartekotasuna eta hizkuntzaartekotasuna ditu oinarri. Bi testuen baliokidetasuna eta bi-bien komunikagarritasuna ziurtatzea da oinarrizkoa. Elkarlan horrek díziplinartekotasuna eta hizkuntzartekotasuna ditu oinarri.

Idazketa elebiduna, noski testu-mota orotan erabili daiteke (txostengintza, publizitatea, eta abar), baina bereziki erabiltzen da bi hizkuntza dituzten herrialdeetako testugintzari lotuta, alegia, arau elebidunak idazteko teknika gisa. Honen adibide dugu arestian azaldu dugun Kanadaren eredia, non Parlamentuko lege federal guztiak korredakzio sistema elebidunean bitartez mamitzen diren.

Euskal legegintzaren kasuan, bada korredakzioa posible egiten duten faktoreak jada mahai gainean ditugula baieztatzen duenik¹. Honakoa liriateke faktore horiek:

- Eragile juridikoak euskaraz prestakuntza egokia izatea. Zuzenbide-ikasketak euskaraz egin eta egiten dituzten ikasleen kopurua geroz eta zabalagoa da eta gero eta kalitate hobeko prestakuntza jasotzen dute. Ondorioz, euskara eta zuzenbidea profesionalki uztartzen dituzten adituak prest daude.
- Herri-administrazioetan ere zuzenbidean euskaraz lan egitea posible egin daiteke eta horretarako legelari euskaldun prestatuak egon badira.

¹ “KORREDAKZIOA ARAUGINTZAN. Itzulpenaz haratago”. Eneko Oregi Goñi, Itzultzaile Zerbitzu Ofizialeko burua. 2009ko urria

- Azkenik, itzultzaileek ere, unibertsitate mailako prestakuntza dute eta, beraz, lankide erabakigarriak izan daitezke legelariantzat.

Argi dagoena da, euskarazko itzulpen testu soilen aldean, idazkera elebidunak hainbat abantaila eskaintzen dituela:

- Testuaren argitasuna bermatzen du, bi hizkuntzak menperatzen dituzten adituek testuaren azken bertsioa adostu behar baitute. Azken finean, testuaren irakurleak gaizki ulertzeko arriskua gutxitzen du.
- Testuen hizkuntza-kalitatea hobetzen du. Euskarazko testu zehatzagoak, ulergarriagoak eta komunikagarriagoak ematen ditu.
- Bi hizkuntzen ofizialtasuna parekatzen du, legegintza arlorrean bederen. Hizkuntza komunitate biek benetako parte hartzea dute administrazioaren jardunean.
- Testu elebiduna izateko epe denbora gutxitzen du. Itzulpengintzak gaztelerazko testu bat sortu eta gerora berau birformulatzeko denbora luzea eskatzen duen bitartean, korredakzioan paraleloan egiten da lan.
- Euskarazko zuzenbide diskurtso juridikoa garatzen ahalbidetzen du eta, ondorioz, euskararen normalkuntzan aurrerapausoa dakar.
- Legelariari bi hizkuntzetan trebatzeko aukera ematen dio.

Korredakzioaren teknikaren bitartez paraleloan sortzen diren kalitatezko testu elebidun, ulergarri eta komunikagarriak sortzea da helburua.

Bi bertsio horien parekotasunak, ordea, ez du esan nahi erredaktoreek testu bera idatziko dutenik, ezta gutxiago ere. Bi hizkuntzen testu-bertsioen arteko aldaerak onargarriak eta normalak dira. Honela, hizkuntza bakoitzaren taukotasuna bermatzen da, hizkuntza batetik besterako moldaketa automatikoa egin gabe.

Euskal legegintzan korredakzio sistema ezarri eta garatzeko aukera mahai gainean dago beraz. Beharbada, itzulpengintza juridikoaren politikak euskararengan sortu dituen ondorio kaltegarriak gainditzeko aukera bakarria legegintza korredakzioaren bitartez garatzea da.

VI. Ondorioak

Argi dago, euskarazko itzulpen juridikoak urte guzti hauetan euskal kulturaren eta zehazki zuzenbidearen alorrean egon den (eta dagoen) gabeziari egin nahi izan diola aurre. Baina itzulpengintza euskararen normalizaziorako aurrerapausu edo muga ote da? Horixe da galdera.

Lan honen puntu ezberdinetan itzulpengintzaren ekarpen positiboak eta sor ditzakeen kalteak zeintzuk diren ikusteko aukera izan dugu. Esango nuke, gaztelaniak menperatutako arlo

juridiko honetan, itzulpengintzak lan bikaina egin duela euskararen presentzia bermatzeko tresna gisa. Urteetan zehar euskaraz izan ditugun testu juridiko gehientsuenak itzulitzakoak izan dira eta horiek esku artean izateko aukera itzulpengintzak eta bere profesionalek egindako lanari eskertu behar diogu. Itzulpena, beraz, bi hizkutzen arteko berdintasun juridikoa lortzeko igaro beharreko aldi edo urratsa dela pentsa liteke, batez ere zuzenbidea hizkuntza bakarrean agertzen den araubide juridikoetan.

Dena den, zergatik ez haratago joan? Arlo juridikoa itzulpengintzaren eskuetatik askatzeko ordua iritsi da agian. Legegintza arloan, behintzat, korredakzio sistema ezartzea proposamen tentagarria dela esango nuke. Lege testuak bi hizkuntza ofizialetan sortzeak, bultzada ikaragarria emango lioke euskarari eta beharbada, arestian aipatu ditugun arazoak gainditzen lagunduko luke.

Halako aurrerapausuetatik hasita, beharbada, etorkizun batean, ez litzateke lan honen antzekoen beharrik egongo; eta hori positiboa litzateke, arlo juridikoan itzulpengintzak duen presentzia murriztea lortu dugunaren seinale den bitartean.

I. ERANSKINA: Itzulpengintzaren alderdi linguistiko

Lan honen helburua arlo juridikoan itzulpengintzak duen lekua eta eragina aztertzea izan da. Ordea, itzulpengintza mintzagai duen lan honetan, ezin genuen lan hau amaitu arlo juridikoan erabili ohi diren itzulpen-estrategien gainean aipamenik egin gabe. Hortaz, lan honen helburua itzulpen-estrategia guztiak banan-bana aztertzea ez dela kontutan izanda ere, komenigarria litzateke, zerrenda bibliografiko formapean bada ere, euskal itzulpen juridikoan erabili ohi diren estrategia linguistikoaren aipamen xume bat egitea, kontsultarako baliabide gisa baliagarri suerta daitezen.

Hona hemen proposatzen den erreferenziazko zerrenda bibliografikoa:

- AGIRRE, J. M. (2009). *Itzulpen estrategiak. Gaztelaniazko testu juridikoak eta administratiboak*. Donostia: HAEE/IVAP.
- ARAKAMA, J. M. et al. (2005) *IVAPeko Estilo Liburua*. Herri Arduralaritzako Euskal Erakundea. Instituto Vasco de Administración Pública
- ARRIETA, A. et al. (2003). *GALDEZKA. Euskarazko zalantzei erantzunez*. Gasteiz: IVAP-HAEE
- ELOSEGI, A. (2002) *Zuzenbideko hizkera berezia. Lege-corpus itzuli bateko terminologiaren azterketa linguistikoa eta terminologikoa*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea
- ERKOREKA, J. eta LOZANO, J. (Koord.) (1994). *Hizkera argiaren bidetik*. Gasteiz: HAEE/IVAP
- HAINBATEN ARTEAN (2009). *Eusko Legebiltzarraren idazteko, itzultzeko eta zuzentzeko jarraibideak*. Gasteiz: Eusko Legebiltzarra. URL: http://www.parlamento.euskadi.net/e_normas_redaccion.html
- HAINBATEN ARTEAN (2009). *Normografia eta arau-idazketa elebiduna*. Bilbo: Deustu Argitalpenak.
- LARRAZABAL, S. eta OREGI, E. (2005). *Hizkera juridikoa eta itzulpengintza: euskararen norabideak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- LOZANO, J. (1997). *Zenbait argibide euskara juridikoaren gainean*. ELERIA 1, 55-76.
- LOZANO, J. (Koord.) (1997). *Argiro idazteko proposamenak eta ariketak*. Gasteiz: HAEE/IVAP
- OREGI GOÑI, E. *Korredakzioa araugintzan, itzulpenaz haratago*. Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren zerbitziburua. IVAP
- PAGOLA, J. eta URKIA, J. (2008). *Interpretearen eskuliburua*. Gasteiz: IVAP
- URRUTIA, A. eta LOBERA, A. (Arg.) (1995). *Euskara, zuzenbidearen hizkera*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea